

Donostia'n mila bederatzireun eta berrogeta amabigarren urteko Azila'ren ogetazapian, Ekautaren etsean, Etxaide Euskaltzainburuordea maipuru dala ta Irigarai, Villasante ta Oleaga Euskaltzainak eta Labaien urgazlea etorririk, Euskaltzaindiak egiten dau gaurko deitutako batzarra.

Araudizko otoitza egin eta gero lenaurreko batzar agiria irakurri da eta onetsia izan da.

Etxegarai eta Lafon euskaltzainak adierazo dabe etorri ezina.

Oleaga jaunak azaltzen dauz lenaurreko batzarrean artu zan Krutwig jaunaren gaizko erabagia beterik Bizkai'ko Junta de Cultura'ren lendakariagaz erabili dabezan autuen gora-berak. Onetsiak izan dira eta bariro ezartzen dako arazo oneri ekin dagiola, Euskaltzaindiaren onerako elburua lortu arte.

Rene Lafon Euskaltzainak bidaldu dautsoz Euskaltzaindiari bere oraintsuko lan batzuen ijekiak: bata "Detsepareren, Les Premices de la langue des Basques" deritzana; bestea "Concordances morphologiques entre le basque et les langues caucasi-ques" deritzana. Pozik ikusi dira.

Urrengo "Euskal-liburu sorta argitaratzeko era edo bidez Euskaltzaindiari txostena" deritzan Villasante Euskaltzainaren lan bat irakurri da. Bertan euskalgaizko ta euskeraren onerako asmo adigarriak agertzen dauz. Txosten orretako lenengo atalean diñoana, oraingo beteta erabagi da, Etxaide eta Irigarai jaunen ardurapean utzirik. Beste asmoak urrengoan erabagiko dira.

Azkenez irakufi da Bilbon Euskaltzaindiaren laguntzalleak izentzak arturik Euskaltzale batzuk egiten dabezan eskari ta eskifiak.

Oleaga jaunak itz egin begi eurokaz eta urrengo batzarrean erabagiko da.

Beste barik eta araudizko otoitzaz emoten dako batzarrari amaia.

Euskaltzainburu-ordea
I. M.^a Etxaide

Zadorkaria
Nazario Oleaga